

SOM ENERGIAKO

KONTU-HARTZAILEEN TXOSTENA

2020KO BATZAR NAGUSIA

Dokumentu hau kontu-hartzaileek katalanez idatzi eta sinatu duten "[Informe Interventors SOM ENERGIA Assemblea 2020.pdf](#)" dokumentuaren euskarazko itzulpena da. Dokumentua interpretatzean zalantzak sortzen badira, jatorrizko dokumentura joko dugu

2020ko ekainaren 20ko Batzar Nagusirako

Batzarrak hautatutako kontu-hartzaile gisa, SOM ENERGIA, SCCLren indarreko Estatutuetako 53. artikulua enkargatzen digun funtzioa betetzeko, legeria aplikagarrian jasotzen diren erantzukizunak gure eginda, enpresaren kudeaketaren azalpen-memoriari, balantzeari, emaitzen kontuari eta arauz 2020ko Batzar Nagusiak onetsi ditzan aurkeztu behar diren kontabilitate-dokumentuei buruzko txosten hau prestatu dugu. Estatutuetako eta Legezko enkarguaren arabera, gure txostenak arauz Batzarrak onetsi ditzan aurkeztu behar diren kontabilitate-dokumentu guztiak barne hartu behar ditu. Txosten hau sinatzen dugun unean, ez dakigu zein den Batzarrera eramandako proposamenen eduki zehatza, honako hauei dagokienez: emaitzen aplikazioa, kapital sozialera egindako borondatezko ekarpenen interes-tasa, kontu-ikuskaritzaren izendapena eta ordainsaria, eta Batzarrak onetsi ditzan aurkeztu behar diren kapital sozialerako nahitaezko edo borondatezko ekarpenen gaineko proposamenak, Kooperatibaren zorraren jaulkipenaren gaineko proposamenak edota Kooperatibaren egitura ekonomikoan funtsezko aldaketa eragiten duen beste erabakiak. Hortaz, ezin dugu gure iritzia eman haien eduki zehatzaren gainean.

Gogoan hartu behar dugu uztailaren 9ko Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legearen 65.5 artikulua hauxe xedatzen duela: "Txosten hori prestatzeko, kontu-hartzaileek, gehienez ere, hilabeteko epea izango dute, Errektore Kontseiluak dagokien dokumentazioa entregatzen dien egunetik zenbatzen hasita". Bestetik, kontu-hartzaileen txostena, gutxienez, Batzar Nagusia baino hamabost egun lehenago helarazi behar zaie bazkideei.

2020ko Batzar Nagusia

Batzarra ekainaren 20an egingo denez gero, gure txostena aurkezteko azken eguna gaur (ekainaren 4a) zen. Zoritxarrez, 2019ko urteko kontuen behin betiko dokumentuak ekainaren 1ean jaso genituen, eta ezin izan ditugu sakon aztertu. Horrenbestez, gure iritzia emateko, maiatzaren 21era arte jasotako behin-behineko dokumentazioarekin lan egin dugu batez ere.

Alabaina, 2018ko Batzarrerako txostenean iradoki genuen bezala, kontu-hartzaileek uste dugu txosten hau, batik bat, ahalik eta ikuspegi zehatzena izateko, ekonomia-, finantza-, ondare- eta kontabilitate-kudeaketa ezagutzeko etengabe egiten ari garen lanaren urte-amaierako ondorioa da. Azpimarratu behar dugu talde delegatuarekin, finantza-arduradunarekin eta Errektore Kontseiluarekin erraz lan egin dugula; eskatu diegun informazioa (bai sozietate nagusiari bai partaidetuei buruzkoa) prest izan ahala eman digute, egin ditugun galderak erantzun dituzte, informazioa ondo ulertzeko eta osatzeko behar adina bilera egin ditugu eta gure iritzia askatasunez eta independenteki adierazi ahal izan dugu.

Txostenean ikus daitekeen moduan, nahiko pozik gelditu gara pertsona horiekin guztiekin egindako lanagatik, aurreko txostenetan azpimarratu genituen auzi batzuk konpontzeko asmoa agertu baitute.

Hala, kontu-ikuskapenean, eman diguten informazio guztia aztertu dugu eta, gure ezagutza eta irizpidea oinarri hartuta, esan dezakegu SOM ENERGIA, SCCLren eta kooperatiba nagusi den sozietate partaidetuen 2019. ekitaldiko egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak eta SOM ENERGIA Taldearen kontu bateratuek sozietate horien finantza- zein ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitza modu egokian eta fidelki islatzen dutela. Urteko kontuen zati banaezina diren SOM ENERGIAREN eta Taldearen memoriek (sozietate partaidetuen memoriak ez ditugu jaso) behar hainbateko informazioa ematen dute egoera ulertzeko; baina, gure ustez, txostenean aurrera egin ahala zehaztuko ditugun alderdi batzuetan azalpen argiagoak eta sakonagoak eman beharko lirateke.

Gauzak horrela, 2020ko ohiko Batzar Nagusiari aurkeztuko zaizkion 2019. ekitaldiko urteko kontuak onestea proposatzen dugu.

Ekitaldi honetan eta aurreko ekitaldietan egindako azterketa ikusita, uste dugu beharrezkoa dela bazkideei gure iritzia ematea ekonomia-, finantza- eta ondare-kudeaketaren gaineko hainbat kontutan, gure ustez, berrikusi, aztertu edo beste modu batean komunikatu behar direlako.

Honako hauek dira:

1. Fakturazioa bat ez etortzea (Endesa, 2017)

2017. urtea ixtean erregistratu zen 779 mila euroko zor-partida, ENDESA enpresaren fakturei zegokiena eta SOM ENERGIAK "aurreratu" zuena, 2018. ekitaldian espontaneoki erregularizatu egin zen. Saldo hartzekoduna erosketa-bolumenekin eta ordainketa-epeekin bat zetorren, baina ez zegoen ebidentzia nahikorik jatorriaren gainean. 2019. ekitaldian zehar ezin izan da argitu nondik zetorren saldo zordun hori, baina saldo hartzekodunak erosketa-bolumenekin eta ordainketa-epeekin bat etortzen jarraitzen du.

Bestetik, jakinarazi zaigu programa informatiko bat ezarri dela, kontratu bakoitzeko kontsumoa kontratu horrengatik enpresa banatzaileari fakturatutako gastuarekin banaka eta automatikoki koadratzen duena. Ulertzen dugu software horrekin ez dela 2017ko zor-egoera errepikatuko.

Giza baliabideak eta baliabide teknikoak handitzea Ekonomia eta Finantza Arloan

SOM ENERGIA, SCCL kooperatiba tamaina handiko enpresa da orain: 62 milioi euroko fakturazioa du, 110.000 kontratu baino gehiago, 65.000 bazkidetik gora eta 10 enpresa partaidetu.

Tamaina horretako sozietate batek zimendu oso sendoak behar ditu, eta baita enpresa kudeatzeko langile-talde eta azpiegitura informatiko egokiak dituen kontabilitate- eta finantza-sail bat ere.

Ekitaldian zehar, finantza-arduradun bat hasi da lanean; berari esker, aurreko ekitaldietako txostenetan azpimarratu genituen gai askotan aurrera egin ahal izan dugu. Baina uste dugu hori ez dela nahikoa eta, gutxienez, beste langile bat beharko litzatekeela, finantza- eta kontabilitate-lanak egiteko; horrela, finantza-arduraduna kudeaketa kontrolatzeaz eta jarduera analizatzeaz soilik arduratuko litzateke. Bestetik, uste dugu inbertsio garrantzitsua egin behar dela lehenbailehen informatikan: Kooperatibaren kudeaketa-arlo guztietako (komertzializazioa, fakturazioa, kontabilitatea, finantzak, eta abar) informazioa integratzea ahalbidetzen duen, aurretik ez zeuden arloak (besteak bestek, hornidurak, erabakiak hartzea, eta abar) garatzen dituen eta kontabilitate analitikoa automatikoki ezartzea ahalbidetzen duen ERP sistema bat.

2. Kontabilitate analitikoa

Aurreko ekitaldietako txostenetan egindako gomendioak kontuan hartuta, Ekonomia eta Finantza Arloak laguntza eskatu zigun kontabilitate analitikoaren irizpideak eta planifikazioa diseinatzeko, Kooperatibaren jardueraren kostu-gune guztien efizientzia ekonomiko eta finantzarioa hobeto ezagutzeko, emaitzak hobeto kontrolatzeko eta helburuak lortzeko eta gastua kontrolatzeko lan-talde guztien inplikazioa sustatzeko helburuarekin.

Lankidetza horri esker, kontuan hartu beharreko kostu-guneak eta kontabilitate analitikoan sarrerak eta gastuak egozteko irizpide aplikagarriak definitu dira. Zoritxarrez, ezin izan da ezarri diseinatutako kontabilitate analitikoa, arazoak sortu baitira oraingo kudeaketa-sistema informatikoen integrazio-gaitasunekin.

2020ko aurrekontua kontabilitatea aztertzeko adostutako jarraibideen arabera prestatu da jada. Ekonomia eta Finantza Arloak hitzeman du, 2020. ekitaldian zehar, kontabilitate analitikoaren kontrola eskuz egingo duela. Erabaki horrek oso poztu gaitu.

Beste aurrerapauso bat emateko, uste dugu, aginte-koadro integral bat (enpresaren kudeaketa eta estrategia nola burutzen diren azaltzen duten adierazle garrantzitsuenak) ezarri behar dela, aurretik zehaztutako helburuen betetze-mailaren jarraipena egiten laguntzeko eta zuzendariei haien gaineko erabakiak hartzen laguntzeko.

3. 2019ko itxierako informazio ekonomikoa

2019. ekitaldian, talde teknikoak, Errektore Kontseiluak bultzatuta, hitzaldi telematikoko ireki batean (nahi izan duten bazkide guztiek parte hartu dute), Kooperatibaren 2019. urteko kontuen azalpen-txostena aurkeztu du. Uste dugu hurrengo ekitaldietan mantentzeko praktika egokia dela hori, baina zabaldu beharko da informazio hobea emateko.

Gure iritziz, komenigarriena da horrelako informazioak aldizka ezagutzera ematea bazkide guztiei, ahal dela, hiru hilez behin, eta ez bakarrik urtea ixtean.

4. Ondare garbiaren aldaketak

SOM ENERGIaren eta Taldearen urteko memorietako "Informazioaren Konparazioa" izeneko oharrek azaltzen duten eta kontu-ikuskapenak azpimarratzen duen legez, ekitaldi honetan, borondatezko ekarpenak egozteko kontabilitate-irizpidea aldatu da. Oraindaino, borondatezko ekarpenak pasibo ez-korrontearen barruko epe luzerako zortzat jotzen ziren; ekitaldi honetan, berriz, funts propio bateratutzat (kapital sozial kooperatiboa) hartu eta ondare garbi gisa sartzen dira. Kontabilitate-birsailkapen horrek 5,77 milioi euroko zenbatekoa du.

Talde delegatuak arrazoitu du aldaketa hori, eta Errektore Kontseiluak onartu. Memorian emandako arrazoibidea irakurtzean, uler daiteke erabaki horrek ez duela indarreko legeria urratzen, baina ikuskarien eta aholkulari juridikoen iritziz, gure iritziz, ekarpenen jaulkipenaren eta ordainsariaren historia kontuan hartuta (Kooperatibak idatziz jasotakoa eta gero komunikatutakoa, egindako kontratuak, eta abar), birsailkapen hori ez zatekeen egin behar, etorkizuneko ordainsariek izan behar duten kontsiderazioaren (dibidenduen banaketa edo finantza-gastua, ekitaldi honetan mantentzen den bezala) zerga- eta kontabilitate-inplikazioak ez direlako behar bezainbeste aztertu eta Kooperatiba irabazi-asmorik gabeko sozietatea delako.

Kapital sozialaren jaulkipenak energia sortzeko proiektuetan inbertitzeko baliabideak lortzeko asmoz egin ziren. Jaulkipenek ez dute epemugarik eta, aurreikuspenen arabera, ekitaldi bakoitzeko interesak ordaindu behar dituzte, baina Batzarrek % 0ko ordainsaria ezartzea erabaki dezake. Erabaki horri eusten badiogu, inflazioaren ondorioz, bazkideentzako balioa gutxituko da eta bazkideek denak batera ekarpenak itzultzea eskatzeko arriskua asumitu beharko dugu. Jaulkipen horiek, gure ustetan, hirugarrenentzako zor-jaulkipenak dira eta pasibo ez-korrontean sartu beharko lirateke.

Memorian azaltzen denaren arabera, aldaketa hori egitea erabaki da kooperatiben aldarri orokorrarekin ("kooperatibek funts propioak handitzeko eta egoera-balantzea sendotzeko erabilgarri duten tresna bakarra" eta "merkataritzako sozietateekiko desabantailan egongo litzateke") bat egiteko, baina erabaki politiko bat izan da. Gure aburuz, finantza-analisten, finantza-sendotasun ratioak kalkulatzeko garaian, ekarpen horiek deskontatuko dituzte.

Badakigu argumentu horiek ez dutela, berez, birsailkapena eginarazteko adina pisurik; kontuan hartu behar dugu birsailkapena egiteak ez duela galerarik eragingo Kooperatiban, baina ezta ezein onurarik ere.

5. Ekitaldiko emaitzaren analisia

2019. ekitaldiko emaitza ona izan da (1.214.829 euroko mozkina), baina zenbateko hori ez zegoen aurrekontuan, ustekabeko emaitza da, ekitaldian zehar hartutako kudeaketa-erabakiekin zerikusirik ez duena. 2019. ekitaldirako aurrekontuan 65.821 euroko emaitza aurreikusi zen.

Aurrekontuari dagokionez, komertzializazioaren salmentengatiko sarreraren partidak 2.107.417 euroko desbideraketa positiboa izan du, eta energia erosteagatiko ordainketen partidak -584.407 euroko kostu txikiagoa izan du. Etorkizuneko prezioak estaltzeko, aurtan, merkatuko prezioen gaineko 2,78 milioi euro ordaindu behar izan ditugun arren, merkatu elektrikoko prezioek abuztutik aurrera beheranzko eboluzioa izan dutenez gero, alde hori sortu da.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, elektrizitate-salmentek % 36,7 egin dute gora, hornidura-gastuak, aldiz, % 14,3 bakarrik hazi dira. Aipatu beharra dago, sarreraren zifrak fakturatzeke dagoen 720,3 mila euroko energia-hornidura baliogabetu izana barne hartzen duela Urteko memorietako akatsen zuzenketa-oharretan jasotzen den bezala, 2018. ekitaldian ez zen baliogabetu eta, horren ondorioz, sarrera txikiagoa da ekitaldi honetan.

Energiak 2019an, 2018arekin alderatuta, izan zuen kotizazio-prezioaren murrizketak (batez besteko prezioa % 16,40 jaitsi da: 58,12 €/MWh izan zen 2018an eta 2019an, berriz, 48,59 €/MWh, OMIEk 2019ko urteko txostenean azaltzen duenaren arabera) eta SOM ENERGIAK 2019. ekitaldi osoan zehar tarifak bere horretan utzi izanak eragin dute alde handiena. Beste era batera esanda, gure tarifak, ekitaldi osoan zehar eta oraindik ere,

2019an merkatuko urteko batez besteko tarifak baino % 19,6 garestiagoak izan dira.

Errektore Kontseiluak tarifak aldatzeko baimena du, energiaren prezioetatik asko desbideratzen badira. Halakoetan, tarifak bizkorrago doitu beharko lirateke Batzarrak onartutako aurrekontuak betetze aldera. Zehazki, ekitaldi honetan, gure bezero guztiek kontsumitzen duten elektrizitateagatik ordaintzen duten prezioa murriztu behar.

Esplotazio-gastuei dagokielarik, nabarmendu behar da ez dela hautematen hirugarrenen zerbitzu-gastuak kontrolatzeko politikarik dagoenik. Izan ere, gastu horiek, 2018arekin alderatuta, salmenta-zifra baino gehiago hazi dira ia errubrika guztietan eta, osorik hartuta, % 78 egin dute gora. Langile berriak urte amaierara arte lanean hasi ez badira ere, langileentzako partidak aurrekontuarekiko 268.902 euroko desbideraketa positiboa izan du. Aurten, gastu horiek ia negozio-zifra bezainbeste hazi dira, hots, % 36,4.

Elektrizitate-salmentengatiko sarreren eta energia-hornikuntzaren arteko alde handiari esker:

- Estreinakoz, jarduera ekonomikoen gainera zerga ordaintzeko hornidura (740.000 euro) zuzkitu ahal izan da (hurrengo ekitaldietan mantendu beharko da).
- Lurzoruaren okupazioagatiko udal-tasak (205.000 euro) ordaintzeko hornidura zuzkitzen jarraitu dugu.
- 400.400 euro zuzkitu ditugu, 2017ko kontratuen datuak oinarri hartuta kalkulatzen den 2019ko Bonu Sozialagatik egindako ordainketaren etorkizuneko eguneraketa zalantzarria gogoan hartuta, hori baita Kooperatibako bezeroei kobratu zaienaren eta kontzeptu horregatik benetan ordaindu denaren arteko alde zehatza (hornidura horrek ez du ondoriorik ekitaldiko emaitzan). Hurrengo ekitaldietan, agintari eskudunek ez badute galdatzen, beharbada, 2019an zehar bonu sozialagatik neurritz gain ordaindu dituzten zenbatekoak itzuli beharko zaizkie bezeroei.

6. EBITDAren gainera marjina

Kooperatibari kaudimena emateko modu bakarra da ekitaldiko mozkinak ez banatzea eta erreserba gisa gordetzea.

Uste dugu erreserba horiek energia berriztagarriak sortzeko proiektuak finantzatzeko erabiliko direla. Energia berriztagarriak sortzeko proiektuen finantzaketa banatu egin behar da, adibidez: % 80an hirugarrenen zorra eta % 20an erreserbetatik eta Kooperatibaren kapitaletik datozen funts propioak.

Horregatik, komenigarria izango litzateke, ekitaldi bakoitzeko, Kooperatibak helburu izatea, gutxienez, EBITDA (irabaziak interes, zerga, balio-galera eta amortizazioen aurretik)

esplotazio-emaiza gordinaren % 3ko emaitza lortzea. Emaiza, zergak ezarri ondoren, % 2 edo % 2,25 izango litzateke.

2019. urteko fakturazioa 64.847.670 euro izaki, % 2ko azken mozkina 1.296.953 euro izango litzateke. Zenbateko horrekin 6.484.767 euroko inbertsioak egin daitezke sorkuntza-proiektuetan, % 80an besteren zorrarekin finantzatuta.

2020. ekitaldiko aurrekontuaren kasuan, aurreikuspenen arabera 77.239.740 euroko negozio-zifrarekin, % 2ko mozkina 1.544.794 euro izango da. Beraz, 7.723.974 euroko inbertsioak egin litezke sorkuntza-proiektuetan, % 80an besteren zorrarekin finantzatuta.

Poztu egin gaitu jakiteak, aurreko ekitaldietan azaldutako iritziari jarraiki, azkenean, aplikatu beharreko tarifak ezartzeko irizpideak aldatzeko proposamena Batzarrera eramatea. Horrela kudeaketa-gastu arruntei aurre egitea ahalbidetzen duen zerga eta amortizazioen aurreko emaitza bermatuko dugu. Halere, gure ustez, azkenean Batzarrean onetsi nahi den marjina, alde batetik, eskasa da sorkuntza-inbertsioak finantzatzeko eta, bestetik, emaitza positiboa bermatzeko, hornikuntza eta gastua zorrotz kontrolatzera behartzen gaitu.

7. Kitatzeko dauden sarrera eta ordainketetarako hornidurak

Aurreko ekitaldietako txostenetan azaldutako iritzia aintzat hartuta, aurreko, bezeroek kontsumitutako eta fakturatzeko dagoen energiarengatik, merkaturako erositako energiak eragindako desbideraketen ondorioz kitatzeko dauden ordainketengatik, eta 2019. ekitaldian kapazitateagatik, sarbide-bidesariengatik eta potentziagatik kitatzeko dauden ordainketengatik zuzkitu beharreko zenbatekoak estimatzeko metodologia aldatu da. Hornidurak horiek, guztira, 895.013 euro batzen dituzte ekitaldiko emaitzan (1.022.435 euro 2018an).

Gure ustez, estimazio-sistema berria aurrekoa baino askoz fidagarriagoa da, planteatutako suposizioetan gerta daitezkeen aldaketa txikien aurrean, zuzkitu beharreko zenbatekoen aldakortasuna murrizten duelako. Une honetan, aurreko txostenetan seinatu genuen bezala, ekitaldia amaitu eta gutxira, baina kontabilitatea itxi baino lehen, ezagututako datu errealak erabiltzen dira, eta, sistema informatikoetan egindako hobekuntzei esker, oinarritzko informazio hobea daukagu.

Hobekuntza horrek poztu egin gaitu.

8. Bazkide ez diren bezeroak gonbidatzea

Une honetan, Kooperatibak 110.000 kontratu baino gehiago ditu eta 66 milioi eurotik gorako fakturazioa. Datu horiekin kostu finkoei aurre egiteko beharrezko baliabideak bateratu dira dagoeneko.

Ez badugu nahi SOM ENERGIA, SCCL energia elektriko berdea merkaturatzen duen beste sozietate bat izatea eta energia elektriko berdea kontsumitzeko irabazi-asmorik gabeko kooperatiba gisa finka dadin, uste dugu, gonbidapena luzatu behar diegula bazkide ez diren bezero berriei.

Bazkide guztiek, Kooperatiban sartzeko, Kooperatibaren kapitalera egiten dituzten nahitaezko ekarpenak, une honetan, banatzaile eta hornitzaileei ordaindutako fakturen, langileria-gastuen, futuroen kontratuen likidazioen eta bezeroei kobratutako fakturen arteko denborazko desfaseari aurre egiteko diruzaintzako funts likido bat hornitzeko baliatzen dira.

Bazkide ez diren bezeroek ez dute finantzaketa horretan laguntzen. Orain arte, bezero-oinarria areagotzeko eta egitura-kostuak ordaintzen laguntzeko baliabide ona izan da, baina, gure ustetan, hemendik aurrera, estrategia hori aldatu beharko genuke, eta bazkideentzako eta senideentzako (egokitzen jotzen den ahaidetasun-mailara arte) kontratuak bakarrik merkaturatu.

9. Hornikuntza-prezioa estaltzeko tresnak erabiltzea.

Batzarrak baimendutako prezioak iraunaldi bakoitzeko ekainetik uztaileara arte bermatu ahal izateko, erosketa-eragiketak egiten ari gara energiaren futuroen merkatuan. Finantza-produktu honen eguneko likidazioak saltzailearen aldeko diruzko aldeak gordailatuz bermatu behar diren merkaturako prezioen arabekoak dira.

KWh-ko prezioaren jaitsiera dela medio, ekitaldia ixtean, likidazioen ondorioz, guztira, 3.593.174 euro gordailatu behar izan dira berme gisa; horietatik 3,19 milioi epe laburrera eta 0,4 urtebetetik gorako epera. Aurten, aktiboan kontabilizatu dira, deribatuetan egindako finantza-inbertsio moduan; hori aurreko ekitaldietan egindakoa (altxortegi errubrikaren barruan sartzea) baino zuzenagoa da.

Merkatuak 2020ko lehen seihilekoaren amaierara arte izan duen eboluzioa ikusita, funts alfer horiek are handiagoak izan behar dute, eta aplikazio horretara beste xede batzuetarako (esaterako, sorkuntza-instalazio berrietan inbertitzea) gordetako funtsetako zenbateko handiak desbiderarazten dituzte. Uste dugu prezio-estalduraren kudeaketa nabarmenki aldatu behar dela lehenbailehen, erositako estaldura-kontratuak iraungitzen ez diren bitartean, une honetan aplikazio horretarako konprometituta dauden funtsen jatorrizko xedea ezbaian ez jartzeko.

Lehenik, bezeroei bermatutako tarifaren iraunaldia murriztu beharko litzateke. Urteko iraunalditik sei hileko iraunaldira pasata, egungo altxortegi-erabilera erdira murriztuko genuke. Bestetik, merkaturako prezioei indexatutako tarifak eskaini eta sustatu beharko genituzke, interesa izan dezaketen bezeroentzat. Indexazioa hautatzen duten bezeroentzat zuzkitu beharreko energiak ez du bermerik eman beharko. Zentzu horretan, egokia iruditzen zaigu, Batzarrera aurkeztuko den proposamenak azaldutako bi neurri horiek barne hartzea.

Bestetik, hauxe izango litzakete gure irizpidea: futuroak berehala berme-eragiketa gisa erabiltzeari uztea eta SWAPS edo opzioak kontratatzeke aukera aztertzea. Finantza-tresna horiek, nahiz eta kotizazio-prezio altuagoa izan, ez dute eguneko likidaziorik eta altxortegia erabiltzera behartzen dute. Gogoan hartu behar dugu, une honetan, futuroen eragiketetarako erabilitako funtsen egokitasun-kostua ez dela ez kalkulatu ez egotzi.

Ez zaigu ez zentzuzkoa ez ekonomikoki iraunkorra iruditzen Kooperatibaren kapital osoa, erresebak eta kapital sozialaren jaulkipenen zati bat (esplizituki hala jasotzen baita azken jaulkipenean) likidezia-funts gisa erabiltzea, banatzaileen, hornitzaileen eta langileen fakturak ordaintzeko eta futuroen merkaturan eragiketak egiteko.

10. Borondatezko dohaina

KWh bakoitzeko zentimo bateko borondatezko dohainak, Batzarrean adostutakoaren arabera, Kooperatibaren gobernantza- eta partaidetza-jardueren eta jarduera solidarioen bi heren finantzatzen ditu, eta sorkuntza-proiektuen inbertsioen azterketaren eta kudeaketaren heren bat. Borondatezko dohainean parte hartzen duten familia guztiek aitortza eta errespetua merezi dute.

Talde teknikoak kontu-hartzaileekin lan egin du kontabilitate analitikoaren irizpideak ezartzeko; horri esker, xehetasun handiagoz aztertu ahal izan dugu jarduera horien emaitza. Irizpide horri jarraiki, ikuspegi analitikotik, aurtan, jada ez dira jarduera horien barruan sartu gobernu-jarduerak eta bazkideen partaidetza-jarduerak, bizitza kooperatiboari datxekizkiolako eta nahitaezkoak direlako.

SOM ENERGIA SCCL irabazi-asmorik gabeko kooperatiba denez gero, bazkideei multikonferentzia bidez aurkeztutako SOM ENERGIAREN 2019. urteko kontuen azalpen-txostenean (goiko 4. atalean, "2019ko itxierako informazio ekonomikoa", aipatzen dena) adierazitakoaren ildoan, uste dugu egokia izango litzatekeela lantalde bat sortzea enpresak energia elektrikoa merkaturatzen duen kooperatiba gisa duen jarduera hertsitik kanpoko jarduerak finantzatzeko behar diren baliabideak sortzeko modu egokiena zein den, jarduera horiek zeintzuk izan behar diren, baliabideak non erabili behar diren eta haiek kudeatzeko lege-figura egokiena zein den aztertzeko.

Gure iritziz, bazkide eta bezero guztiek modu ekitatiboan lagundu behar dute baliabide horiek sortzen; horrenbestez, baliabideak aurrekontu orokorretik sortzearen alde egiten dugu, tarifa-sarrera arrunten kargura. Eta zerga-abantailak dituztenez gero, baliabideok kudeatzeko tresna aproposena fundazio bat eratzea dela uste dugu.

11. Finantza-emaitza

2019. ekitaldian aurkeztutako 68.988,50 euroko finantza-emaizta zuzena da kontabilitatearen ikuspegitik.

Finantza-emaizta osatzen duten partida guztiak banaka eta kontabilitate analitikoaren ikuspegitik berraztertzean, hauxe ondorioztatu dugu:

- Ondare-tresnetako partaidetzek ekartzen dituzten sarrerak enpresa partaidetuen dibidenduak dira. 2019. ekitaldian, enpresa bakar batek banatu zituen dibidenduak: INICIATIVAS ENERGÉTICAS COMBINADAS, SL, (INECO), SOM ENERGIA, SCCLrekin mailegurik ez duen sozietate bakarra. Sozietate hori akzioen bidez erosi zen oso-osorik. Horregatik, dibidenduen kobrantzari dagokionez, kontuan hartu behar dugu erosketa finantzatu ahal izateko egin zen zor-jaulkipenari jasanarazi beharreko finantza-kostuak kobratzen ari garela, eta baita jaulkipeneko kapitalaren itzulketa ere. Zehazki, sozietatea erosteko 851.572 euro gastatu ziren.

2017an, 80.656,50 euroko dibidendua kobratu zen. Hortik zati bat, 14.902,51 euro, interesak izango lirateke (851.572 euroren % 1,75) eta beste bat, 65.753,99 euro, zor-jaulkipena amortizatu ahal izateko inbertsioaren itzulketa.

2018an, 72.218,48 euroko dibidendua kobratu zen. Hortik zati bat, 13.751,82 euro, interesak izango lirateke (amortizatzeke zeuden 785.818,01 euroen % 1,75) eta beste bat, 58.466,66 euro, zor-jaulkipena amortizatu ahal izateko inbertsioaren itzulketa.

2019an 71.480,01 euroko dibidendua kobratu dugu. Analitikoki aztertuta, hortik zati bat, 12.728,65 euro, interesak izan dira (amortizatzeke zeuden 727.351,35 euroen % 1,75) eta beste zati bat, 58.751,36 euro, zor-jaulkipena amortizatu ahal izateko inbertsioaren itzulketa.

- Beste finantza-tresna batzuen ondoriozko sarrerak gainerako sorkuntza-enpresa elkartuei emandako maileguetatik datoz. Mailegu horiek eta finantza-gastu guztiak ahalbidetzeko kapitala bi modalitateko zor-jaulkipen ordainduekin eskuratzen da (interesen ordainketa kontabilizatutako finantza-gastuak dira):
 - Epe luzeko epemuga duten lehentasunezko partaidetzak, % 4ko interesarekin; une honetan, hondar-partaidetzak dira (412.500 euroko zenbateko bizia).
 - Borondatezko kapital soziala, epemugarik gabeko jaulkipen betikotua, Batzarrak urtero adostutako interesarekin (une honetan % 1,75).

Zehazki, lehentasunezko partaidetzen eta kapital sozialaren jaulkipenek eragindako sarrerak honako hauen batura dira: RINGSTEDen 11.096 euro, MAKASSARen 32.421 euro,

GADSTRUPen 6.625 euro, TERBORGEn 5.003 euro, EXIOMen 39.300 euro eta goian kalkulatutako INECOn dibidenduetatik datozen 12.728 euro.

Guztira, 107.173 euro. Zenbateko horrekin jaulkipenen finantza-gastuen (149.549 euro 2019an) ordainketari aurre egin behar zaio. Jaulkipenen finantza-emaizta analitikoa negatiboa da: 42.376 euro.

- Badago ere zuzenean interesekin ordaintzen ez den beste zor-jaulkipen mota bat: Generation kWh proiektuaren ondoriozko jaulkipenak, 25 urterako epemuga dutenak. Jaulkipen horiek, jaulkipen horiekin berekin eraikitako instalazioetan, produkzio-kostaprezioan kontsumitutako energiaren zati baten ordainketa-eskubideen, hots, akzio energetikoen, bidez ordaintzen dira, produkzio-kostu estimatua 0,36 €/kWh izaki.

Finantza-sarrerak berraztertzean ikusi dugu, Generation kWh proiektuaren jaulkipenekin instalazioak eraikitzeke, bi sozietateri emandako maileguen ondoriozko sarrerak kontabilizatzen ditugula (guztira, 52.289 euro: 35.347 euro energiari dagozkio eta 16.942 FONTIVSOLARI), baina ez ditugula kontabilizatzen jaulkipen horien ondoriozko gastuak edo sarrera txikiagoak. Sarrera horiek akzio energetikoen eskubidetzen duten energia Generation kWh instalazioen produkzio-kostuan saltzeagatik lortutako sarrera txikiagori aurre egiteko behar dira. Finantza-gastu gisa sartu ez den sarrera txikiagoa 87.542 euroan kuantifikatu da 2019an zehar. Hortaz, Generation kWh proiektuaren finantza-emaizta analitikoa negatiboa da: 35.253 euro.

Funtsean, uste dugu finantza-emaizta analitikoak, jaulkipen moten arabera, oso argi jakinarazi beharko lirakekeela. Izan ere, 2019an aurkeztutako emaizta positibotik (68.988 euro), 77.629,16 euroko emaizta analitiko negatibora pasa gara.

	Finantza-emaizta	
	Kontabilitateko a	Analitikoa
Sarrerak	218.213,63	218.213,63
INECO dibidenduak	71.480,02	
Kapitala		58.751,37
Interesak		12.728,65
Elkartutako sozietateei emandako maileguen interesak	146.733,61	

Generation kWh proiektutik kanpoko enpresak		94.444,61
Generation kWh proiektuko enpresak		52.289,00
Gastuak	149.549,42	295.842,79
INECOn kapitalaren amortizazioa		58.751,37
Kapital-jaulkipenen interesak	149.549,42	149.549,42
Generation kWh proiektuko sarrera txikiagoak		87.542,00
Eraitza	68.664,21	-77.629,16

Azpimarratu nahi dugu alde hori, funtsean, Generation kWh tarifei eragindako sarrera txikiagoak finantza-gastu gisa ez kontabilizatzearen ondorioz gertatu dela.

Gure iritziz, SOM ENERGIA SCCLk emandako maileguengatik enpresa partaidetuek ordaintzen duten finantza-kostua handitu behar da, lehentasunezko partaidetzen eta kapital sozialaren jaulkipenen kostu osoa beren gain har dezaten.

Horregatik ere uste dugu ez genituzkeela erabili behar energia berriztagarria ekoizteko instalazio berriak zor-jaulkipenekin (nola kapital sozialarena hala bankuena) eraikitze behar diren baliabideen % 100. Horren ordez, % 80an besteren kapitala eta % 20an kapital propioa erabili beharko genuke. Eta % 20 hori, neurri batean, Kooperatibaren kapitalek (bazkide guztiek egiten dugun 100 euroko ekarpena) eta, beste batean, eraitza positiboaren ondoriozko SOM ENERGIA, SCCLren erreserbetatik atera beharko genuke. Horregatik, EBITDAren % 3tik gorako eraitza positiboa lortu behar dugu.

12. Zor-jaulkipenak

Goiko atalean azaldu dugun moduan, energia sortzeko proiektuak finantzatzeko, Kooperatibak zorraren, lehentasunezko partaidetzen eta borondatezko kapital sozialaren jaulkipenak egin ditu.

Borondatezko kapital sozialaren jaulkipenek ez dute epemugarik eta edozein unetan eska daiteke haiek itzultzea. Bazkide guztiek batera dirua itzultzea eskatzeko arriskua saihesteko, 2019ko Batzarrean, Errektore Kontseiluari, ekitaldi bakoitzeko, 1.350.000

eurotik gorako, edo ekitaldiaren hasieran dagoen kapital sozialaren %10etik gorako, itzulketak ez onartzeko eskubidea esleitu zitzaion.

Arrisku hori saihesteko, esku-hartzaileek uste dugu bazkide bakoitzak egin dezakeen borondatezko ekarpena mugatu behar dela.

Konektatuta edo eraikitzeko bidean dauden azken proiektuetan, 2.500 kWh-ko kontsumoa duen batez besteko familia bakoitzeko inbertsio-prezioa murrizten joan da.

- Fontivolar instalazioak 800.000 euro kostatu zuen, 685 familia hornitzen ditu, eta familia bakoitzak 1.167,88 euroko inbertsioa egin beharko luke.
- La Florida instalazioak 1.025.000 euro kostatu zuen, 1.040 familia hornitzen ditu, eta familia bakoitzak 985,58 euroko inbertsioa egin beharko luke.
- Nafarroako haize-parkeak 26.500.000 euroko aurrekontua du, 34.085 familia hornituko ditu, eta familia bakoitzak 777,47 euroko inbertsioa egin beharko luke.
- Anglesolako instalazioak 1.800.000 euroko aurrekontua du, 1.882 familia hornituko ditu, eta familia bakoitzak 956,43 euroko inbertsioa egin beharko luke.

Azken proiektuen batezbesteko aritmetikoaren arabera, familiek 817,47 euroko inbertsio egin beharko lukete hornidura jasotzeko.

Datu horiek ikusita, uste dugu komenigarria izango litzatekeela bazkide bakoitzak borondatezko kapital sozialean egiten dituen inbertsioetarako 5.000 euroko muga ezartzea. Zenbateko hori familia bakoitza finantzatzeko behar den zenbatekoa bider bost baino gehiago da eta, inbertitzeko aurrezkirik ez duen familiarik badago, proiektuak gauzatu ahal izatea bermatzen du.

Muga horrekin bazkide guztiek batera dirua itzultzea eskatzeko arriskua murriztuko litzateke, baina askoz bazkide gehiagok parte hartu beharko lukete inbertsioetan jaulkipen berriak eginda. Bazkide gehiagok parte hartzea lortzeko, informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egin beharko genuke.

Bestetik, orain arte, zor-jaulkipenak egin dira beti energia berdea sortzeko proiektuen % 100 finantzatzeko. Esan dugun bezala, gure ustetan, beti inbertsioen % 100 finantzatzea palanka-efektu handiegia eta Kooperatibarentzat arrisku handiegia da. Uste dugu zentzuduna izango litzatekeela energia sortzeko proiektuak honela finantzatzea: % 80 besteren zorrarekin eta % 20, neurri batean, Kooperatibaren kapitalek datozen eta, beste batean, aurreko ekitaldietako emaitza positiboek sortutako erreserbetatik datozen funts propioekin.

Planteamendu horrekin, gure iritziz, besteren zorra ez dugu finantza merkatuetan bilatu behar eta bazkideek osorik har dezakete beren gain.

Gogoan hartu behar dugu, planteamendu horren arabera, sorkuntza-proiektu berrietan inbertitzeko mozkinen ondoriozko funts propioak behar direla. Hala, energia-sorkuntzaren hazkundera bazkide berrien eboluzioarekin eta lortutako emaitzekin lotuko genuke.

13. Sorkuntza-enpresa partaidetuak

Sozietate batzuek emaitza negatiboa dute eta haien kutxa-fluxuekin ezin diete aurre egin SOM ENERGIA, SCCLk emandako maileguen interesei eta amortizazioei. Beste batzuek emaitza positiboak dituzte, baina haien kutxa-fluxuekin zailtasunak izango dituzte ENERGIA, SCCLk emandako maileguen interesei eta amortizazioei aurre egiteko.

Egoera hori arintzeko eta baliabide-injekzio berriak (esaterako bazkideek sozietateetara egindako ekarpenak) egin behar ez izateko, antza, SOM ENERGIA, SCCLren eta sozietate partaidetu bakoitzaren arteko PPA akordioak edo aldebiko kontratuak egiteko aukera aztertzen ari da.

Aldebiko kontratuak egitean, SOM ENERGIA, SCCLren emaitzak enpresa partaidetuetara transferitzen dira. Merkatuko prezioa aldebiko kontratuan adostutakoa baino txikiagoa bada, energia merkatuko prezioan erosteak gainkostua ekarriko du SOM ENERGIA, SCCLrentzat. Merkatuko prezioa aldebiko kontratuan adostutakoa baino handiagoa bada, berriz, SOM ENERGIA, SCCLk irabazia lortuko du energia merkatuak baino prezio hobean eskuratzeagatik. Enpresa partaidetuen finantza-oreka bermatzeko, aldebiko kontratuetan adostu beharko diren prezioei dagokienez, uste dugu, oro har, SOM ENERGIA, SCCLk gainkostua bere gain hartu behar duela.

Aldebiko kontratu horiek egiten badira, nahitaezkoa izan beharko da memorietan sozietate bakoitzak asumitzen duen gainkostuaren eta agregatuaren berri ematea, gardentasun handiena erakusteko eta sorkuntza-proiektuek emaitza onak dituztela eta ondo funtzionatzen dutela (merkatuko prezioetan ez lukete funtzionatuko) ez pentsarazteko.

Martxan ditugun proiektuen finantza-egoera orokor eta historikoa ikusita, uste dugu, masa sozialak Kooperatibaren egungo sorkuntza-estrategia egokia ote den baloratu beharko lukeela. Energia sortzeko proiektu txiki eta ertainak mantentzen jarraitzen badugu, merkatuko prezioa baino apur bat gehiago ordaintzeko prest egon beharko dugu. Nekazaritza ekologikoko produktuak erosi ahal izateko ordaindu beharreko gainprezioaren antzeko zer edo zer.

14. Generation kWh

Une honetan, Generation kWh proiektuaren barruan, Kooperatibak bi proiektu ditu martxan eta proiektu bat eraikitzen. Bi proiektu horien finantza-interes eta dibidenduekin ezin zaie aurre egin akzio energetikoek eskubidetzen dituzten kostuei. Hortaz, emaitza negatiboa da:

35.253 euro. ENERGES sozietateak bere ondare garbia desorekatzen duten emaitza negatiboak ditu behin eta berriz. Sozietate horiek ez dituzte SOM ENERGIA, SCCLri mailegua itzultzeko adina kutxa-fluxu sortzen.

Bestetik, instalazio horiek sustatzeko zor-jaulkipenak linealki amortizatzen zaizkie bazkideei urtero. Ordainsaria ez dago amortizatzeke dagoen kapitalaren mende, baizik eta bazkide bakoitzak egiten dituen kontsumo "hobarituen" mende. Horiek horrela, bazkideek mailegatutako kapitalek oso ordainsari handia jasotzen dute eta, ondorioz, Kooperatibak finantza-gastu handia asumitu behar du. Lehen azaldun dugun legez, gastu hori, sarrera txikiagoa, ez dago kontabilizatuta.

Azaldutakoaren arabera, uste dugu lantalde bat sortu behar dela lehenbailehen Generation kWh proiektuaren jarraitutasuna eta bideragarritasuna aztertzeko. Lantaldeak proiektua bere osotasunean (kontratuak, kontabilitatea, finantzak, zergak...) berrikusi behar du, enpresek ordaintzen dituzten interesak gehi etorkizunean lor ditzaketen dibidenduak akzio energetikoek eskubidetzen duten gastua ordaintzeko nahikoak izan daitezen.

Une honetan, SOM ENERGIA, SCCLren emaitzak Generation kWh proiektua osatzen duten enpresetara transferitzen dira. Hori ez dago inon kuantifikatuta ezta informatuta ere, eta ez du proiektuaren irudi zehatza ematen, pentsa baitaiteke ekonomikoki ondo funtzionatzen duela, eta ez da hala.

Egoera honetan, agian, Anglesolako instalazio berria eraikitzen jarraitu eta akzio energetiko berrien jaulkipena irekita utzi beharko genuke, instalazio osoa finantzatzera iritsi arte. Baina, behin finantzaketa lortuta, gure ustez, gelditzea komeni da eta, lantaldeak oinarri sendoagoekin proiektuari bultzada berria emateko ondorio irmoak atera arte, akzio energetiko berririk ez jaulkitzea.

15. Kooperatibaren xedea

Ulertzen dugu Kooperatibak, giza, ekoizpen-, aisia- edo mugikortasun-jardueraren eremu guztietan, % 100 berriztagarriak diren energia garbiak erabiltzeko trantsizio energetikoa bizkortzeko tresna izan nahi duela.

Xede hori, estrategiaren ikuspegitik, bazkideek eta bezeroek kontsumitzen duten energiaren % 100 ekoizte aldera aurrera egiteko ikuspegiaren zehaztu zen.

Kooperatibak lanean daramatzan hamar urte hauetan, alde batetik, ezin izan dugu lortu merkaturatzen dugun energiaren % 6 edo % 7 baino gehiago sortzeko behar adina kapazitate eta, bestetik, aldi berean, mota ezberdinetako eragile berriek (korporazioak eta inbertsio-funtsak, baina baita tokiko edo udal-proiektuak, kooperatibak edo inbertitzaile partikular ertain eta txikiak eta autosortzaileak ere) egunero elektrizitate-bolumen handia salgai jartzen duten sorkuntza elektriko berriztagarriko instalazioak eraiki dituztela ikusi dugu.

Lehen ikusi dugu ere Kooperatibarenak diren edo haren mende dauden proiektuek ekonomikoki irauteko zailtasun handiak dituztela, aurreikuspenen arabera, hurrengo urteetan energiak merkatuan izango duen salmenta-prezioa ikusita.

SOM ENERGIA, SCCLren eta bere sorkuntza-sozietateen arteko PPA akordioak egiteaz gain, gure ustez, komertzializazio-eraketak sorkuntzara transferitzean gure buruari iruzur egiteari utzita, Kooperatibaren ikuspegi estrategikoa berrikusi eta horretarako lantalde bat sortu beharko genuke. Sorkuntzak ezin du izan helburu bakarra eta ekintza-, inbertsio- eta negozio-lerro berriak bultzatu behar ditugu trantsizio energetikoa sustatzeko. Horren harian, adibidez, mugikortasunaren elektrifikazioak azpiegituren bultzada behar du; Kooperatibak arlo hori esplota dezake. Bestetik, gure bazkideen eta bezeroen energia-kudeatzaile integralak izateko jarduera-lerro bat azter genezake, baita autokontsumorako partikularren edota enpresen instalazioak finantzatuta ere.

Santi Andorrà i Sunyer

Santiago Martí Díaz

Xavier Cots i Majoral

39361624E

22661680X

39344018B

Bartzelonan, 2020ko ekainaren 4an.